Ez da zergadunen kexarik jaso enpresa pribatu bat, eta ez Nafarroako Gobernuko langileak, izateagatik kontsultei erantzuten diena; izan ere, ez da antzemateko moduko alderik ikusi kontsultei ematen zaizkien erantzunetan. Erreklamazioak, funtsean, kontsulta teknikoei erantzuna emateko garaian gertatu den saturazioarengatik egin dira, haietarako beharrezko baita Errenta eta BEZ ataletako gestoreek erantzutea.

Alabaina, erreklamazio horien jatorria ez da ATENTO enpresak eskainitako zerbitzua, zerbitzu hori hasi baino lehenagokoak direlako, Nafarroako Tributu Ogasunean dagoen langileria defizitaren ondorioz. Datozen hilabeteetan Zergadunari Laguntza eta Informazioa emateko Zerbitzuan ogasun arloko 6 gestore gehiago sartuko dira lanera, eta haiek berenganatuko dute telefono-laguntza espezializatuko lana. Horrekin, erantzun gabeko deiak direla-eta egun dauden arazoei erantzunen zaie.

Kontsulta espezializatuei dagokienez, PFEZ eta BEZ atalek egunero 08:30etik 14:30era bitarte ogasun arloko gestore bat (B maila) dute halako arazoei erantzuteko. Oinordetza, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gainerako Zergen eta Sozietateen gainerako Zergaren ataletan eginkizun horiek esleituta dauzkaten gestoreek (atal bakoitzeko bat) bai eta deribatzen dizkieten deiei erantzuteko gainerako ataletako

administrariekin erantzuteko lan horiek eta beren unitateetako berezko lanak batera egin behar izaten dituzte.

I. eranskinako taulan jasotako deiei buruzko datuak, ATENTOko operadoreek zuzenean erantzundakoak eta kasuan kasuko unitateetara deribatutakoak dira.

Gaur egun dauzkagun datuen arabera, Nafarroako Gobernuak ekainera arte 901-505152 linea-ko zerbitzuarenengatik ordaindutakoak 2.516.350 pezeta egiten du.

Kontrataturiko zerbitzua emateko, ATENTO TELECOMUNICACIONES enpresak ondoko pertsonak dauzka:

- 5 pertsona, 09:00etatik 14:00etara, egunero.
- 2 pertsona, 08:30etik 09:00etara, egunero, salbu uztail-abuzuetan; hil horietan, laguntza zerbitzua 14:00etan bukatzen da.
- Pertsona bat, zerbitzuko operadoreen eta Argibideetarako eta Eskualdeko Langelen Atalaren arteko koordinazio lana egiten duena.

Urtarrilean, apirilean, ekainean eta abenduan, zerbitzuak beste bi operadore izanen ditu (guztira 7 izateraino) 9:00etatik 14:00etara eta beste operadore bat (guztira 3 izateraino) 14:00etatik 17:30era.

Pertsona horietarako ezarri zen profilean lanbide heziketako titulazio gutxiengo bat exijitu zitzaien, hain zuzen administrazio arloko bigarren gradukoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 15ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

I. eranskinak
**Erantzundako/deribatutako dejak
(2001eko urtariletik urrira bitarte)**

Konsultako gaia dagokion unitatea	Jasotako deiak, guztira	ATENTO enpresak konpondutako konsultak	Guztien gaineko ehunekoa	Deribatutako kontsulta, guztira	Guztien gaineko ehunekoa	Deribatu eta rantzundako deien kopuru	Deribatuen guztien gaineko ehunekoa	Erantzun gabe deribatutako kopurua	Deribatuen guztien gaineko ehunekoa
PFEZ Atala	19.556	11.339	% 57,98	8.217	% 42,02	5.062	% 61,60	3.155	% 38,40
BEZ Atala	10.285	1.894	% 18,42	8.391	% 81,58	4.871	% 58,05	3.520	% 41,95
Gerorapenen Atala	1.677	967	% 57,66	710	% 42,34	493	% 69,44	217	% 30,56
Derrigorezko Dirubilketaren Atala	1.002	276	% 27,54	726	% 72,46	545	% 75,07	181	% 24,93
Sozietateen gaineko Zergaren Atala	4.996	1.006	% 20,14	3.990	% 79,86	2.724	% 68,27	1.266	% 31,73
Zerga Bereziaren Atala	466	156	% 33,48	310	% 66,52	218	% 70,32	92	% 29,68
Ondare Eskualdaketen Atala	4.402	1.852	% 42,07	2.550	% 57,93	1.859	% 72,90	691	% 27,10
Argibideetarako ATala	20.723	16.887	% 81,49	3.836	% 18,51	2.857	% 74,48	979	% 25,52
Bestelako unitateak	15.457	12.691	% 82,11	2.766	% 17,89	2.050	% 74,11	716	25,89
GUZTIRA.....	78.564	47.068	% 59,91	31.496	% 40,09	20.679	% 65,66	10.817	% 34,34
Jasotako deien gaineko ehunekoa	% 100	% 59,91				% 26,32		% 13,77	

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatria eta Neonatologia Zerbitzuaren egoerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatria eta Neonatologia Zerbitzuaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko abenduaren 4ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak 2001eko azaroaren 21ean galdera egin du Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatria eta Neonatologia Zerbitzuaren egoerari buruz. Hona Osasun kontseilariaaren erantzuna:

Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatria zerbitzuan 3 fakultatibo zeuden (zerbitzuburu bat eta zerbitzuari atxikitako 2 fakultatibo espezialista). 2001eko azaroaren 1etik aurrera, plantilla zabaldu eta laugarren pediatra bat jarri zen arratsaldeko lanaldirako.

Laugarren pediatra ospitalera sartzearekin, ondoko hobekuntza hauek lortu nahi dira:

– Lehenbizi, lana fakultatibo gehiagoren artean partitzen da, eta hura egiteko ordutegi luzeagoa eskaintzen da.

– Bigarrenik, arratsaldean pediatra bat egonen da, orain arte ez bezala.

– Hirugarrenik, pediatriako larrialdiak eta jaioberrien arreta azkarragoa izanen da arratsaldean pediatria zerbitzua egotearekin.

Neurri horrek zerbitzuaren baliabideen ugaltea eta pediatriako laguntzaren hobetza bateragarri eginen ditu, pediatrez baliatzeko aukera gehiago eskaintzen baitu, bai ospitaleratze jarduerarako, bai larrialdietarako eta jaioberriei lagunzia emateko. Horren guztiaren ondorioz, ematen den laguntzaren kalitatea hobetuko da.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Obstetricia Zerbitzua ixteko inongo aukerarik aztertu, are gutxiago gaur egun, hain zuzen ere ospitale horretan pediatriako zerbitzua hobetu ondoren, arratsaldeko pediatra bat jarri; izan ere, hemendik aurrera pediatra bat egonen da arratsaldez, lehen lokalizaturik baizik ez zegoen bitartean.

Hori guzтиa jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 23an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, N-232 errepidearen bikoizketak foru lurrualdean izanen duen trazadurari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritako betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak N-232 errepidearen bikoizketak foru lurrualdean izanen duen trazadurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko abenduaren 26ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera egin du N-232 errepidearen bikoizketak foru lurrualdean izanen duen trazadurari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaaren erantzuna:

1.- Zer ondorio izanen ditu Nafarroarentzat N-232 errepidea Nafarroako lurrualdean sartzea, Viana eta Mendabia artean?

Dugun informazioaren arabera, N-232 errepidea Nafarroan bikoizteko Sustapen Ministerioak aztertu dituen alternatibei esker, Ebro ibaiko ardatzak errepide handi horrekiko lotune zuzena izanen du alderdi horretan –Viana eta Mendabia artean alegia–.

2.- Zer koordinazio ezarri da Sustapen Ministerioarekin?

Nafarroako Gobernua eta Sustapen Ministerioa koordinatuta aritu dira hasieratik bertatik Logroño eta Agoncillo artean N-232 errepidea bikoizteko informazio-azterlaneko alternatibak planteatzerakoan.

3.- Proiektuak Lizarra-Logroño autobiaren trazadura aldatuko du?

Proiektuak ez du ezertan ere aldatuko Lizarra-Logroño autobiaren trazadura.

4.- Zer iritzi du Herrilan Departamentuak Sustapen Ministerioaren planei buruz?

Esan bezala, bi administrazioen arteko koordinazioa erabateko da.

Dena den, Sustapen Ministerioaren informazio-azterlan hori jendaurrean jarri behar da trazadura aukeratu eta onetsi baino lehen.

Edozein kasutan ere, hirugarren galderari emandako erantzunean esan dugun legez, bateragarriak dira Logroño eta Agoncillo artean N-232 errepidea bikoizteko Sustapen Ministerioak proposatu dituen alternatiba guztiak eta Nafarroako Gobernua sustatzen ari den Iruña-Logroño autobiaren proiektua.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 24an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Audenasko lan-gatazkei eta Estatuaren jabetzako zatiaren balizko pribatizazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritako betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak Audenasko lan-gatazkei eta Estatuaren jabetzako zatiaren balizko pribatizazioari buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko abenduaren 17ko 126. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du Audenasko lan-gatazkei eta Estatuaren jabetzako zatiaren balizko pribatizazioari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez daki estatuak Aude-nasa pribatitzeko asmorik baduen. Badaki, ordea, ENAUSA pribatitzeko asmoa duela, baina horrek ez luke Audenasan eraginik izanen,

aurreikusita baitago hora bereiztea baldin eta balizko pribatizazio hori gauzatzen bada.

Ez dagokio Nafarroako Gobernuari Audenasa bereizi ondoko EUNASAre pribatizazio balizkoa baloratzea. Bestalde, estatuak Audenasan duen zatia pribatizatz gero Nafarroako Gobernuak bere zatia gainetik kentzeko aprobetxatuko lukeela ez da une honetan eztabaidagai.

Lan-gatazkei dagokienez, Nafarroako Gobernuak Audenasan dituen ordezkariek sindikatueki-ko negoziazioa eta aldeen arteko akordioa defenditzen dute. Nafarroako Gobernuak ez du espekulaziorik egiten enpresak negoziatzean duen jarrerari buruz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak eza-rritakoari jarraituz.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Agoizko eskualderako lurrualdea lehengoratzeko proiektu bat ote dagoen jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritako betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak Agoizko eskualderako lurrualdea lehengoratzeko proiektu bat ote dagoen jakiteko egindako gal-deraren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko abenduaren 26ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du Agoizko eskualderako lurrualdea lehengoratzeko proiektu bat ba ote dagoen

jakiteko. Hona Ekonomia eta Ogasun kontsei-lariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez du hitzarmenik sina-tu Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin Agoiz-ko eskualdeko lurrualdea lehengoratzeko, gisa

horretako hitzarmenak sinatzeko organoa ez baita hori.

Nafarroako Gobernuak ez du inolako konpromisorik Agoizko Udalarekin galdera parlamentarioan aipatzen diren obrak finantzatzeko, deialdi arruntetatik eratorritakoak salbu.

Itoitzen eraginpeko eremuaren erabilerarako eta garapen sozioekonomirako plana taxutzeko fundazioaren estatutuak onetsi ditu Nafarroako Gobernuak. Fundazio horretako kide izanen dira

eskualdeko udalak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa eta Nafarroako Gobernua, baina oraino ez da zehaztu horietako bakoitzak zer diru-ekarpen egin beharko duen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezaerritakoari jarraituz.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Ekonoma eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Nafarroako Ospitaleko Bularretako Patologia Zerbitzurako kontsulta zain dauden den zerrendei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritako betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak Nafarroako Ospitaleko Bularretako Patologia Zerbitzurako kontsulta zain dauden den zerrendei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko abenduaren 4ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du Nafarroako Ospitaleko Bularretako Patologia Zerbitzurako kontsulta zain dauden den zerrendei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzuan —UFCAMA-bularreko minbizia duten gaixoak artatzeko unitate funtzionalean—, 436 emakume zegoen 2001 bukatzean urte horretarako programatutako azterketa egiteko zain.

2001ean azterketa egiteko zain zeuden emakumeen kopuru beretsua da hori, baina ez da berbera; izan ere, UFCAMA artatutako emakumeen ehuneko txiki-txiki bat linformak dituzten emakumeek egiten dute, eta minbizia duten emakume batzuk beste unitate funtzional batuetan ari dira artatzen, nahiz eta haien jarraipenerako dagokien

unitate funtzionaletan gaixoak birbanatzeko prozesua oso aurreratuta dagoen. Hala ere, kopuru oso baliagarria da auzia behar bezala eta neurrian aztertzeko.

Azken bost urteotan bularreko minbizia diagnostikatu zaien emakumeen kopurua ezin zaio eman une honetan inori ere; izan ere, Nafarroako minbiziaren erregistroak —minbiziak gure erkidegoan duen eraginari buruzkoa— 1993-1997 bosturtekoari buruzko datuak eman zituen, eta horiek dira, hortaz, gaur egun ezagutzen ditugun barkerak. Bosturteko horretan, 1.227 emakume eta 3 gizoni aurkitu zitzaien bularretako minbizia.

Dugun informazioa galderan eskatutakoari hurbiltzeko, nabarmendu beharreko beste datu bat da UFCAMA azken 5 urteotan lehen kontsultan artatutako emakume gaixoen kopurua. Halere, zerbitzu hori 2001eko otsailean sortu zenez, minbizia izan eta lehen kontsultan artatutako emakumeen kopuruari buruzko datuak 2001ekoak dira, eta epe horretan 215 gaixo artatu ziren. Onkologia zerbitzuan, oro har, azken urteetan, minbizia zuten 1.130 gaixo berri artatu ziren.

Bularretako Patologia Zerbitzuan gertatzen ari den gehieneko itxaronaldiari buruz, 2001eko abenduaren 31n denbora gehien itxaroten zera man gaixa 2001eko apirilekoa zen, zortzi hilabete alegia, azterketen atzerapena batez beste 3,335 hilabetekoa zen, eta balio zentrala bi hilabetekoa.

Atzerapenari aurre egiteko, abian dira kontsultak —bost orduko horietako bakoitza— arratsaldez, 2002ko urtarrilaren 7tik aitzina, onkologia

zerbitzuko fakultatiboek UFCAMAn artatu ditzaten bularretako minbizi izan eta atzerapena sufritu duten gaixo guziak, halako moldez non 2002ko otsailaren 26an itxaron zerrendarik ez baita iza-nen.

Halaber, astean 10 orduz areagotu dira UFCA-MAkо kontsultak 2002an arazoa berriro gerta ez dadin, eta onkologia radioterapikoko fakultatibo

espezialista bat kontratatu da UFCAMArri atxikita-ko plantilla handitzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, Arguedasen Naturaren Parkea ezartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritako betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Arguedasen Naturaren Parkea ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Arguedasen Naturaren Parkea ezartzeari buruz. Hona Industria eta Teknologia, Lan, Merkataritza eta Turismo kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

Enpresa hori sozietate anonimoa da, kapital gehiena pribatua duena, eta hortaz, bideragarritasunari buruzko azterlana eta merkatuari buruzko azterketa haren jabetzakoak eta isilpekoak dira. Halatan, zure talde parlamentarioak informazio hori eskuratu nahi badu, sozietateari eskatu beharko dio.

SODENAK duen partaidetza bat dator sozietate horren estatutuekin, eta gainera aldi baterakoa da –gehienez ere 8 urte–. Epe hori iragandakoan, gainontzeko bazkideek partaidetza hori xurgatu

behar dute, Nafarroan proiektu berritzaileak abia-razi eta handik epe batera erretiratzea baita SODENAreن helburua.

Errege Bardeako Komunitatearen balizko partaidetza buruz, esan beharra dago parte hartzeko eskaintza egin zitzaiola erkidego horri; izan ere, 87 lanpostu zuzen sortuz, ingurumeneko prestakuntzaz, zerbitzuen sektorea garatuz eta abar proiektuak on egiten dio eskualdeari. Partaidetza hori SODENAreن akzio-paketearen kontra eginen litzateke.

Departamentu hau proiektu berriak sustatzeko ahaleginak egiten ari da, eta horretarako ekimen pribatua turismo sektorean implikatu nahi du, bal-din eta proiektu horiek aberastasuna eta enplegua sortzen badute eta errentagarriak badira.

Parque de la Naturaleza, S.A. sozietateak ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanak egin eta Nafarroako Gobernuko departamen-tu eskudunean aurkeztu ditu.

Nafarroako Gobernuak azterlan ekonomiko horiek ditu, baina pribatuak dira. Merkatuari buruzko azterketa eta bideragarritasunari buruzko azterlana arrazoizkoak direla bermatzen du sozie-tatearen akzioen gehienagoan kapital pribatua sar-tzeak, eta horregatik inbertitzen dute proiektu horretan.

Iruñean, 2002ko otsailaren 12an

Industria eta Teknologia, Lan, Merkataritza eta Turismo kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

Galdera, eskola umeentzat duten ikus-entzunezkoei buruzko lehen lehiaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritako betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eskola umeentzat duten ikus-entzunezkoei buruzko lehen lehiaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du eskola umeentzako ikus-entzunezkoei buruzko lehen lehiaketa dela eta. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Hona epaimahaiko kideen izenak: Alberto Pérez Gil jauna, Gabriel Ángel Pérez Gómez jauna, Serafín Ramírez Gamen jauna, Nieves Ciprés Aznar andrea, José Luis Yanguas Urmán jauna eta Maximino Gómez Serrano jauna. Batzorde teknikokoak, berriz, ondokoak izan ziren: Hezkuntzari Aplicatutako Teknologia Berrien Unitate Teknikoko buru Javier Ibáñez Iborra jauna eta Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuko ikus-entzunezkoen ahokulari Juan M^a Pagola García eta Juan José Garrancho Adame jaunak.

2. Alberto Pérez Gil jauna RTVEko Nafarroako Kontseilu Ahoklu-emaileko lehendakari den alde-

tik zegoen epaimahaian, ente horrek Hezkuntza eta Kultura Departamentuarekin batera sustatu zuelako lehiaketa hori. Gabriel Ángel Pérez Gómez jauna TVEko Nafarroako zuzendari den aldetik –TVEk lehiaketan kolaboratu zuen–. Serafín Ramírez Gamen jauna RTVENAK lurralde-ordezkarria den aldetik –RTVENAK lehiaketan kolaboratu zuen–. Nieves Ciprés Aznar andrea RTVEko Nafarroako Kontseilu Ahoklu-emaileko kide den aldetik. José Luis Yanguas Urmán jauna Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien zerbitzuburu den aldetik, eta Maximino Gómez Serrano jauna Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Euskara zerbitzuburu den aldetik.

3. Epaimahai batek lehiaketa bat eman gabe uzten duenean beti darabil arrazoi bera, alegia, lehiakideek ez dutela antolatzaitzaleek eskatutako mailarik ematen.

4. Erantzun honi erantsitako aktan agertzen direnak dira epaimahaia hartutako erabaki bakanarrak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2002ko otsailaren 21ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria, Jesús M^a Laguna Peña

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan).

Galdera, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Departamentuan bitarteko izendapenen salbuespeneko prozedura erabiltzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritako betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Departamentuan bitarteko izendapenen salbuespeneko prozedura erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko

Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 11ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Departamentuan, bereziki Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoan, bitarteko izendapenen salbuespeneko prozedura erabiltzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

A) Hona azken bost urteotan Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoan bitarteko izendapenaren salbuespeneko prozedura erabili izanari, izendapen horien iraupenari eta lan eskaintza publikoetan eskaini diren lanpostuen deialdiari buruzko informazioa:

1.- Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuan lanpostu hutsak izan dira 1997 eta 2001 bitartean, aholkulari juridiko izateko lau lanpostu hain zuzen ere; bata, funtzionario Alberto Andérez González jaunarena, bitarte osorako lanpostua gordeta, eta bestea, Alfonso Zuazu Moneo jaunarena –1997ko urtarrilaren 7tik hona borondatezko eszendentziaren lanpostua aldi baterako gordeta.

Bitarte horretan lanpostu horiek betetzeko, zerbitzu eginkizunak aitortu zaizkie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren era-kunde autonomoen zerbitzuko Administrazio Publikoko teknikari (arlo juridikoa) edo gisakoak zirenei, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategineko 23.1.c) artikuluan ezarritakoan oinarrituta.

Halatan, bitarte horretan zerbitzu eginkizunak bete dituzte, aldi baterako, aholkulari juridiko lanpostuetan ondoko funtzionario publikoek:

– Humberto Manterola Erro jauna, 2000ko urtarrilaren 11 arte, Lehendakaritza Departamentuko Barne Eraentza Zerbitzuko zuzendari izatera pasa baitzen egun hartan.

– José Gabriel Iriarte Rived jauna, 1999ko urriaren 14a arte, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontratazio eta Aseguruen atalburu izatera pasa baitzen egun hartan.

– Ignacio Carrillo de Albornoz Alfaro jauna, 1997ko urtarrilaren 15etik 1998ko martxoaren 23ra arte eta 1999ko abuztuaren 10etik 1999ko urriaren 5a arte, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuko zuzendari izatera pasa baitzen egun hartan.

– Idoia Tajadura Tejada andrea, 1999ko urriaren 13an hasi eta gaur arte, oraindik ere lanpostu hori betetzen ari baita.

– Maite Ezkurra Mata andrea, 2000ko otsailaren 1ean hasi eta gaur arte, oraindik ere lanpostu hori betetzen ari baita.

Aholkulari juridiko lanpostu jakin batzuk aldi baterako bete dituztenek lege eta erregelamendu aldetik ezarritako baldintzak betetzen zituzten. Lanpostua bete aurretik Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariak haien aldeko proposamenen egin zuen, eta ondoren organo eskudunak hartu zuen erabakia.

2.- 1998ko lan eskaintza publikoan –apirilaren 27ko 144/1998 Foru Dekretu bidez onetsia (maiatzaren 18ko 59. NAO, abuztuaren 2ko 92. NAOren eta abuztuaren 28ko NAOren bidez zuzendua)– ezartzen zenez, “Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek ondoko zerrendan agertzen diren plazak behin-betikoz betetzeko deia egin ahalko dute”: “Aholkulari juridikoak: 3 lanpostu huts, funtzionario araubidean. Plantila organikoan 8, 14 eta 4.036 zenbakiak” (1.2 artikulua).

3.- 1999ko otsailaren 15ean Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emandako ebazpen baten bidez, aholkulari juridikoa izateko bi lanpostu huts mailaz igotzeko lehiaketaren bidez, betetzeko deialdia onetsi zen –1999ko martxoaren 15eko 32. NAO–. Deialdia tramitatuta, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 1999ko azaroaren 15ean emandako ebazpen baten bidez, bete gabe geratu zen hura.

4.- 2000ko urriaren 9an Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emandako ebazpen baten bidez, Nafarroako Gobernuaren aholkulari juridiko izateko 2 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zen –2000ko azaroaren 15eko 138. NAO–. Ondotik, 2001eko irailaren 24an Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emandako ebazpen baten bidez, izangai onartuen behin betiko zerrenda onetsi zen, epaimahaiaren osaketa aldatu eta zehaztu zen eta oposizioko lehen ariketa egiteko eguna finkatu zen –urriaren 10eko 123. NAO–. Oposizioa 2001eko urrian, azaroan eta abenduan zehar egin da, eta izangai batek bakanrik gainditu duenez, epaimahaiak haren aldeko izendapen proposamena egin du.

B) Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari buruzko informazioa:

1.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen sarrerari buruzko Erregelamenduaren 42. artikuluak arautzen du zer prozedura erabili behar diren langileak administrazio nahiz lan araubidean aldi baterako kontratatzeko –erregelamendua ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–.

Halako kasuetan beti erabiltzen da erregelamendu horrek ezarritako hiru prozesuetako bat; izan ere, horiek dira administraziotik kanpoko pertsonak aldi baterako kontratatzeko araudiak ezartzen dituen bide bakarrak (ez dugu ahaztu behar erregulazioa Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen "sarrerari" buruzko Erregelamenduan jasotzen dela).

Halere, baldin eta erregelamendu bidez ezarritako inguruabar eta baldintza jakin batzuk gertatzen badira, administrazio honetako funtzionario direnen bidez bete daitezke aldi baterako lanpostuak, bestelako prozedura batzuk erabilita –horietako batzuk sindikatuekin lortutako akordioen ondorio dira-. Hona: goragoko maila batean prestakuntza-sustapen araubidean lanpostu bat betetzea (apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua), lanpostuak bitarteko moduan betetzea (Langileen Estatutuko 32. artikulua eta azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen lanpostuak betetzeari buruzko erregelamenduko 48. artikulua eta ondokoak) eta aldi baterako zerbitzu eginkizunak (Langileen Estatutuko 23. artikulua).

2.- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Ahokularitza Juridikoko edo beste zerbitzu batzuetako lanpostuak betetzeko bitarte baterako izendapena salbuespen gisa egin denean, lanpostu horiek betetzeko legez eta erregelamendu bidez ezarritako baldintzak –alegia, atxikipen maila, eskatutako titulazioa, egokitasuna, erabilgaitasuna eta abar– betetzen dituzten funtzionarioak erabili izan dira.

3.- Urtebeteko gehieneko epea lanpostua hutsik dagoenetarako dago ezarrita, baina ez lanpostuaren jabetza lanpostua gordeta izateko eskubidea duen funtzionarioen kasuetarako, halakoetan bitarte baterako egoeran egote hori hura

lanpostura itzuli arte luza baitaiteke (Langileen Estatutuko 32. artikulua eta lanpostuak betetzeari buruzko erregelamenduko 49. artikulua).

Halatan, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan bitarte baterako izendapenak egin direnetan, legez eta erregelamendu bidez ezarritako epeak errespetatu dira.

4.- Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen lan eskaintza publikoan ezartzen denez –apirilaren 27ko 144/1998 Foru Dekretu bidez eta urtarrilaren 16/2001 Foru Dekretu bidez onetsi dira azkenak–, administrazioak lanpostu batzuk behin betikoz betetzeko deialdia egin ahalko du, horien kopurua, izena, maila eta atxikipen organikoa zehaztuta, hau da, lanpostuen deialdia egiteko atea irekitzen da, baina ez da deialdia egiteko agindurik ematen.

Oro har, lan eskaintza publikoan sartutako lanpostuak aurrena merezimenduen barne lehiakera ateratzen dira, eta hurrena deialdi publikora. Halere, lan eskaintza bat onesten denetik behin betikoz bete bitarteko epe luze horretan hainbat egoera gertatzen dira, aurreikuspen hori horiekin guztielk betetzea eragozten dutenak; izan ere, lanpostuak ez betetzea edo beste lanpostu mota batzuk sortzea eskatzen duten beharrizan berriak gertatzen dira antolamendu aldetik, departamentuen nahiz erakunde autonomoen egitura organikoa aldatzan da, eszidentzian dauden langileak itzultzen dira...

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2002ko otsailaren 25ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

<p style="text-align: center;">HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p style="text-align: center;">ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <table><tbody><tr><td>Urte bat.....</td><td>39,07 euro</td></tr><tr><td>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa</td><td>0,96 »</td></tr><tr><td>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa.....</td><td>1,14 »</td></tr></tbody></table>	Urte bat.....	39,07 euro	Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa	0,96 »	Bilkura Egunkariaren aleko prezioa.....	1,14 »	<p style="text-align: center;">IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p style="text-align: center;">NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p style="text-align: center;">«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p style="text-align: center;">Arrieta 12, 3</p> <p style="text-align: center;">31002 IRUÑA</p>
Urte bat.....	39,07 euro						
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa	0,96 »						
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa.....	1,14 »						